

BEZEROAREKIN HARREMANAK

Gure enpresarentzako garrantzitsuena bezeroak dira. Enpresa hau guztiz hauei zuzenduta dago eta gure helburua hauek momentu ona, gustura egotea eta lokala konfidantzako gune bat bezala iksutea da, hau da, guri gehien gustatuko litzaigukena gure helburua betetzea da, hau da, harreman handiak egin eta laguntza ematea eta gainera oroitzapen onak sortzea da.

Horretarako, gure harremana pertsonala zein automatizatu izan daiteke. Ulertzekoa da, jende batek nahiago duela edo erosoago sentitzen dela, edozein arrazoiengatik, pantaila baten bidez guri hitz egiten, hau da, webgunearen bidez edo sare sozialen bidez eta guk hau eskuzabalik hartuko dugu eta behar duten guztia erantzun edo eskeiniko diogu. Halaber, badaude beste pertsona batzuk nahiago dutela harreman pertsonalagoa izan eta aurrez aurre hitz egin eta hau ere eskuzabalik hartuko dugu, izan ere, esan bezala gure helburua hauek eroso sentitzea da eta gu edozein momentu eta egoerara amoldatzeko gai gara hau lortu ahal izateko.

Guk antolatu ditugun ekintza guztiak hauei zuzenduta daude, hau da, gure helburua lortzeko uste dugu ekintza hauek eginez errezagoa izango dela eta hori dela eta antolatu ditugu aurretik azaldutako guztiak. Hala ere, bezeroen ekarpenak beti ongiatorriak izango dira, izan ere, haiek sentitu behar dira gustura eta zerbait gustatzen ez bazaie edo beste zerbait gehitu nahi ezkerorako eskertuko diegu guri esatea eta gu beti ahaleginduko gara konpontzen edo hobetzen.

Hala ere, aurreko aukera guztiez gain, lokalean bertan liburuxka bat jarriko dugu norbaitek anonimoki zerbait esan nahi badu bertan esateko aukera izateko, hau da, gurekin hitz egin nahi ez badu, ez sare sozialen bitartez ez aurrez aurre, horrela egiteko aukera ere egongo da.